

## PRENTSA OHARRA

# Arabako Foru Aldundiak, Deustuko Unibertsitateak eta Euskadiko Parke Teknologikoen sareak berri-ekin egin dute Zientzia eta Teknologia emakumeen bokazioak sustatzearekin duten konpromisoa

- Emakume eta neska zientzialarien nazioarteko egunean, beste bultzada bat emango diote Araban laugarren ediziora heldu den INSPIRA STEAM programari.
- Aurreikusitako ekintzen barruan, ikastetxeei, familiei, enpresa ehunari eta gizarteari oro har zuzendutako zabalkundeko ekimenak daude.
- INSPIRA STEAMek neskek ere ikasketa zientifiko eta teknologikoak aukeratzea lortu nahi du, esparru horietan lanean diharduten erreferentziazko emakumeek ikastetxeetan aholkularitzako saioak emanda.
- Aurten, gainera, Zientzian eta Teknologian erreferente diren arabar emakumeen lana jarri nahi da denek ikusteko moduan, saltokietako erakusleihoetan kartelak jarrita.

Gasteiz, 2021eko otsailaren 11.- [Arabako Foru Aldundiak](#), [Deustuko Unibertsitateak](#) eta [Euskadiko Parke Teknologikoen Sareak](#) ikasleen artean bokazio zientifikoak eta teknologikoak sustatzeko konpromisoa berretsi dute gaur, [Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunean](#), bereziki nesken artean, INSPIRA STEAM programari beste bultzada bat emanez. Programa 2016an sortu zen, [Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultatean](#), [STEAM](#) (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika) lanbideak sustatzeko eta emakumeen arlo horretako talentua sustatzeko. Aurten bosgarren ediziora heldu da Araban.

Artium Museoan gaur goizean izan den ekitaldi batean, [Ramiro González Vicentek](#), Arabako Ahalduen Nagusiak; [V́ctor Urcelayk](#), Deustuko Unibertsitateko Ekintzaitzako eta Enpresekiko Harremanetako errektoreordeak; eta [Itziar Epalza Urkiagak](#), Euskadiko Parke Teknologikoen Sareko zuzendari nagusiak, abian jarri dute edizio hau. Era askotako jarduerak izango dituzte, azpimarragarrienak hauek: aholkularitzako saioak ikastetxeetan, esparru horretan lanean diharduten erreferentziazko emakumeen eskutik, eta Arabako saltokietan jarriko den kartelen erakusketa, arabar emakumeen lana Zientzian eta Teknologian begi-bistan jartzeko. Gainera, ikasturte honetan, **ikastetxeei, familiei, enpresa ehunari eta gizarteari** oro har zuzendutako **zabalkundeko ekimenak** egongo dira.

Duela lau urtetik hona, Arabako Foru Aldundiak programa babesten dihardu eta aurten bere konpromisoa zabalduko du. Arabako Ahalduen Nagusiak azpimarratu duenez, gazteei (mutilei eta, bereziki, neskei) STEAM lanbideak hurbiltzeko balioko du, bereziki “osasun arloko krisiak agerian jarri duenean Zientziak eta Teknologia gure bizitzan duten garrantzia”.

Ildo horretatik, gogoratu du Araba dela Estatuko lurralderik industrializatuena, BPGaren % 33 sektore horretatik baitator, eta kanpora gehien esportatzen duena da. “Hortaz, Zientzia eta Teknologia zuzen-zuzenean daude lotuta gure etorkizuna eraikitzearekin”, Ramiro Gonzálezek azpimarratu duenez.

Gaur egun, 7.700 emakumek dihardu Euskadiko Parke Teknologikoen sarean, bertan lanean dihardutenen % 40. Parke Teknologikoen Sareko 117 profesionalek hartu dute parte aholkulari lanetan Inspira STEAM proiektuan, batzuek edizio guztietan. 2020-2021 edizioan, parkeek Inspira STEAM proiektuan parte hartuko duten emakumeen % 44 jarriko dituzte.

[Arabako Parke Teknologikoak](#) inguru horretan lan egiten duten **erreferentziazko emakumeen parte hartzean** egingo du ekarpena, aurreikusitako jardueretarako **espazioak** lagako ditu eta **informazio panelak prestatuko dituzte**. Horrez gain, enpresa sarearen bidez, programa osoaren **jarraipena** egingo du eta **programa osoa babestuko du**.

### **Aholkulariak, INSPIRA proiektuaren muina**

**INSPIRA** proiektuaren muina aholkulariak dira (ia denak emakumeak), **hainbat esparrutan lanean dihardutenak: irakaskuntza, enpresa, ikerketa, kudeaketa**, etab. Borondatez hartzen dute parte eta bakoitzak berak bizi duen errealitatera hurbiltzeko ahalegina egiten du ikasturtean zehar izaten diren sei lan-saiotan.

Hiru erakundeen arteko lankidetzaren barruan, 2021ean aurreikusitako ekintzen barruan, **ikastetxeei, familiei, enpresa ehunari eta gizarteari** oro har zuzendutako **zabalkundeko ekimenak** daude. Lehenengo atalean, aholkulariekin geletan izango

diren saioez gain, **INSPIRAren zabalkundeko jardunaldiak** diseinatu dira arabar ikastetxeetako **irakasleentzat** eta zuzendaritza taldeentzat. Horrez gain, **tailerrak** egingo dira **irakasleekin genero ikuspegia STEAM irakasgaietan** txertatzen saiatzeko.

**Familiei** zuzendutako ekintzei dagokienez, zenbait **tailer** antolatuko dira, **zientzia eta teknologia arloko lanbideetan emakumeen faltak eragiten duen arazoa** ezagutarazteko. **Bokazio faltaren arrazoiak** aztertuko dira eta zelan lagundu gazteei, batez ere neska gazteei, etorkizunera begirako erabakiak askatasunez hartzen, **konfiantza faltak, sexuaren araberrako itxaropen desberdintasunak, genero estereotipoak edo STEAM arloko** ikasketa eta profesionalak **ez ezagutzeak** eragiten dituzten arazoak alde batera utzita.

### **Emakumezko erreferenteak arabar saltokietan**

**Arabar gizarte** osoari begira, zenbait jarduera antolatuko dira: **jardunaldiak** eta **mahai-inguruak, bideo elkarrizketak** zabaltzea, edo **emakume zientzialariei atal berezi bat eskaintzea**, hitzarmenean **partaide diren erakundeen webguneetan**. Baina ekimenik **originalena Arabako STEAM emakume erreferenteak begi-bistan** jartzea izango da, lurralde historikoko **saltokietako erakusleihoetan** jarriko diren **posterren** bidez. **Ikastetxeetara** ere bidaliko dira **kopia digitalak, kopiak egin** eta geletan eta pasabideetan **erakusgai** egon daitezen.

Azkenik, jardueren **hirugarren blokea industria eta enpresa ehunari** zuzenduko zaio. Izan ere, dagoeneko **profesional faltak dakartzan ondorioak jasaten** ari dira zenbait arlo eta profil zientifiko-teknologikotan. Enpresak **jabetzen dira arazoa larriagoa** dela emakumeen kasuan, baina **ez dakite** bokazio falta horren **zergatia** zein den. Saiatuko dira enpresei azaltzen **haien posiziotik zelan eragin dezaketen hezkuntza sisteman, diziplina zientifiko eta teknologikoak** gazteei **hurbiltzeko**. Zenbait ekimenetan laguntzeko eskatuko zaie: **STEM emakume erreferenteak** haien langileen artean **identifikatzen**, ezagutzera emango dituzten **posterren eta bideoen diseinuan laguntzen**, eta **ikasleen bisitaldiak lantokietara** antolatzen, **genero ikuspegia** txertatuz.

### **Inspira STEAMi buruz**

**INSPIRA STEAM Deustuko Unibertsitateak** bultzatutako ekimen bat da. Zenbait erakunderen laguntza du: **Euskadin, Innobasque-rena; Madrilen CIONET** plataforma teknologikoarena, eta **Rovira i Virgili, Vigo, Oviedo** eta **A Coruña**ko unibertsitateena. Ekimenak **Araba, Bizkaia** eta **Gipuzkoa** Foru Aldundien, **BBK Fundazioaren**, edo **Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen** finantzazioa dute, beste erakunde publiko eta pribatu batzuen artean.



2016an jarri zuen abian programa hau **Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateak, zientzia eta teknologian lanbideko bokazioen faltak** sortzen zuen arazoaz **jabeturik**, bereziki **emakume gazteen** artean. Helburua hau da: **STEAM lanbideen** arloan **bokazio berriak sortzeko**, sentsibilizatzea, **orientazioa ematea** eta bokazioak **piztea** neska-mutilen artean. **Kontzientzia** ere sortu nahi da **zientzia eta teknologia** garapena **emakumeek eta gizonek elkar harturik** jokatzearen emaitza izan behar dela, aldi berean, **begien bistan jarri** eta merezi **duen balioa** eman nahi zaie esparrurik hurbileneko emakumezko **profesional zientifiko eta teknologikoei**.

Konpromiso berri hori berresteko, **otsailaren 11** aukeratu da, [Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna](#), 2015ean [Nazio Batuen Batzar Nagusiak](#) sortua, emakumeen eta neskek esparru horretan **sarbidea** eta **parte hartze osoa** eta **bidezkoa** izan dezaten. Nazio Batuen Erakundeak **funtsezko papera** aitortzen dio hala izateari zientzia eta teknologia elkarrekin. Hortaz, emakumeen **parte hartzea sendotu egin behar da**.